

**TOLERANTZIA**

1. **Tolerantzia.** Jasapena, jasankortasuna. Itz jatorriari dagokionez, eta istoriako erabilpenaren ariora, bestea berean uztea esan nai dau. Ez jazarri, ez beartu, ez sakatu. Berean uzte au neutralidade ideologikotik eta etikotik jazo daiteke, edo eta kontzientzi zauritutik. Leenengoan, ez daukat eritzirik bestearenaren aurrean, bestearen jardueraren aurrean. Bigarrenean, bestearen ideiak eta jarduerak nire kontzientzia, niretzat bizitza-baloreak diranak zauritu egiten ditu. Alderdi onetatik, ezin naiteke, beraz, neure naierara eta eroso bizi. Istorian garatu izan dan eta orain gure gogoeta gaia dan tolerantzia, bigarren au dogu. Era biok alkartuta ere egon daitekez, jakiña: asikeran astindu egiten dauana, gero normaltzat artzen da, soziologikoki normaltzat, naiz eta balora alderditik arbuiagarria izan. Eta berezkotasun soziologikoak balorak geroago eta geiago ezabatzera ere eroan dagikee.

Neutralitate-tolerantzia indiferentea da: bardin da bata zein bestea. Orregaitik ezin daiteke giza-elburu unibersaltzat jarri, egitez giza-balore guztiak ukatzea litzake ta. Eta, azken baten, orretara jarri ezkerro, tolerantzia bera eta intolerantzia (bilentzia, gogorkeria) bardin litzakez (balore ikuspuntutik). Ostera, tolerantzia defentzitzen danean, balore bat defendidu nai da, ez jarrera indiferente bat bultzatu. Etikaz eta eskubideaz itza

egiten bada, mailla orretan mobitzen gara. Bestera, egite uts artean genbilkez, eta zer konbeni jakun zeazten. Ez, etika alderditik, zer dan bidezko eta bearrezko aztertzen.

Istorian zear, bearrianak alan eskatuta, tolerantzia jarri bear izan da argitan, kontzientzian eta gizartean, Alkar-bizitza aalbideratu eta segurtatzeko. Argi dago gaur ere ez garala oindiño tolerantzi-kulturara eldu, ez munduan, ez geure artean. Baiña orrantza goazela, batera, naitanaiez banandu dogu tolerantzia indiferentziatik, eta, geiago dana, jasan-eziñezkoak ain argi markatu bear dirala konturatzen gara. Tolerantziatz itz egiten danean, ez da atsegin eta modazko jasan-eziñezkoaz jardutea. Baiña tolerantzia aintzat artu bearreko giza-balora izango bada, eta ez batzuen erosotasun indiferentea, beragaz batera markatu bear dira jasan-eziñezkoak. Jasan eziñezkoa da intolerantzia bera. Au esatea errezegia da eta ez dirudi aurrerapenik egiten dogunik. Baiña baita, ikusiko danez, errezegia da tolerantzia balora absolutotzat jarrea ere, jasan-eziñezkoak batera markatu barik. Orrela, tolerantzia kontraesaneko biurtuko litzake, askorentzat bizi-eziña ekarriko leuke ta. Egitez au jaso, eta emen ulertzen dogun zentzuan, zuzeneko intelertantziaren neurrian jazo ere. Tolerantzia ideiaaren eta bizikiunaren aurrerapena askatasun barrutiaren zabalpena eta garapena baiño ez dala ikusiko dogu. Tolerantzia, kontzientzia zaurituaren jarrera danez, negatiboa dala bakarrrik esan daiteke. Baiña alderdi negatibo ori (ez sartu, ez ikutu) izan arren, azken baten eta sustraian, giza-askatasunaren eta erantzukizunaren edapena danez, alderdi onetatik beintzat, positiboa da: ez da bertanbera uztea, askatasunaren garatzen aalbideratzea dogu.

Indiferentzia kutsagaitik eta itxurazko alderdi negatibo onegaitik, gaur batzuk tolerantzia gutxitzat dauke, eta aren ordezt aniztasunaz (pluralismoaz) eta solidaritateaz dagie itz. Izan ere, tolerantziak, jasateak, berez arbuiagarritzat jotzen dau bestearen dntsakera eta jarduna, eta negatibo ori eroan egiten dau. Pluralismoak diferentearen eskubidea esan gura dau, eta, gai-

ñera, batzuetan beintzat edo askotan aberasgarri dala ere bai. Solidaritateak besteen eskubideak zaindu eta garatzea esan nai dau. Duda barik, alderdi oneek azpimarratzea bearrezko da eta giza-arremonetan aurrera-bideak dira. Alan ere, nik uste ez dirala naasta bear, tolerantzi ideia eta jarrera gaindituta balego lez. Giza egoerak oso ezbaridiñak dira, eta ez dot uste erlaziño guztietan era berean solidaritatea sartu daitekenik. Batzuetan naiko izango da tolerantzia heste barik, eta nire kontzientzia zauritzen dauan alderdi orretan ez dot uste beste pausurik emon bear danik. Solidarizatu bai askatasunaren alde, eta, beraz, batzuk tolerantziaren eskubidea besteakandik izan dagien, baiña ez nire kontzientzia zauritzen dauan alderdi konkreto ori suztatzeraiño.

Maillak dagozala onetan onartu bear dogu. Orregaitik beste kasu batzuetan argiago ikusi daikegu solidaritate konkretoaren aalbidea. Gure arteko musulman bategaz, musulman dan orretan ere solidaritatea erabilli daikegu eta erabilli bear dogu: ez bakarrik aren askatasuna orokorki aalbideratuz, aren erlijioaren baloreak onartuz eta aregan suztatuz.

Munduko arazoen aurrean, oneek konpontzeko bidean, tolerantzia ezeze solidaritatea bear dogula esan nai bada, argi dago eskakizunaren arrazoia. Abortoaren aurrean, esate baterako, solidaritatea persona orrei aurra izan eta zaintzako aalbi-deak eskeintzea litzake. European etorkiñak geroago eta geiago izango dirala argi dago. Arazo larriak oraintxe ere sortzen dira, eta aurrerantzean geitu baiño ez dira egingo: solidaritateak or bear aiñako arrera gertatzea esan nai dau, eta, munduko politika zabal egoki batean, giza bearrizan orri bidera urten eta euren lurraldeetan aurrerapena eta bizimodu erazkoa lortzen laguntzea. Arazo bakoitza banan banan ikusi bear da.

Biolentziaren aurrean ere antzeko gogoeta egin bear da. Biolentzia jasan eziñezkoa da, onartu ezoñezkoa. Desagertu egin bear dau, desegin. Baiña zelan lortzen da bilolentzia desegitea? Emen dago arazoa: zelan lagundu bortxagillari bor-

txa-bidetik urtetzen. Galdera onek jartzen deutso gizarteari gizakorrigo eta sakonagoa dan arazoa. Eta galdera au egiten dauan gogoeta solidaritate bidean jarten da.

Baiña ikusten dogu, orain aipatutakoaz, berez tolerantzia utsa eta solidaritate ideia alderdi ezbardiñak dirala, zer diferentei dagokiezala. Ain diferenteak dira ze billentzia, esate baterako, jasan-eziña da berez, baiña beste alde batetik, solidarioak izan bear dogu biolentoekin ere (aai dan eiñean), euren egoeratik urteten laguntzeko.

## 2. Oiñarria.

a) Tolerantziaren oiñarria personearen duintasunean datza, Vaticano IIak erlejiño askatasunari buruzko agirian diñoanez: azalpen onen leenengo itzak, izena emoten deutsoenak, izendatzen dabe askatasun orren, eta beste edozein tolerantziaren oiñarria: “Giza personaren duintasunaz gaurko gizonak geroago eta kontzientzi argiago dau, eta aziz doa gizonak bere jardunean, bortxatuta barik eginbearraren kontzientziak gidatuta, bere irizmena eta askatasun erresponsablea gozatu eta erabilli dagizala eskatzen dabenen kopurua” (*Dignitatis humanae*).

Kontzilio aurreko pentsakeran eta Kontzilio bertako eztabaidetan “egiaren eskubideak” ziran gizarteko artuemonen oiñarria. Orrek baiña, istoriak erakusten duan lez, eta pentsakeraren egitura aztertuz ikusten dan bezala, ez eban azken baten alkar-bizitzarako urtenbiderik eskeintzen; bestera, baiño: naita-naiez autoritarismoa eta besteen askatasuna ukatzea ekarran beragaz. Egiaren eskubideez itz egiten danean, beti lez, agertzen or zuzen dan zerbait. Baiña gaur pentsa daiteke errezago ikusten dogula nire egia eta besteen egia ez datozela bat, eta bitartean alkarregaz bizi bear dogula, edo nire egia bortxaz inposatu. Eskubideak personearenak dira. Eta personean kontzientziaren bidez eta askatasunaz bakarrik garatzen da eta bere izatera eltzen.

Eskubideen eta askatasunaren oiñarria personearen duintasuncan ikusiz, eta eskubideak egiarenak barik personearenak dirala onartuz, guztizko aldakuntza gertatzen da eta arreman guztiak beste era batera ulertu eta epaitzeko ikuspegia lortzen dogu. Beste erizpiderik ez balego ere, onegaz badogu toletantzia, pluralismoa eta alkarrizketa non oiñarritu. Tolerantzia ez da besterik personearen izate espirituala onartzea baiño: egiara (eta bere izatera) kontzientziaz eta askatasunaz eltzen dan izakia. Au barik, gure gizartean aldarrikatzen diran eskubideak konbentzio kulturalak baiño ez litzakez, oituraz, itunez eta norbere egokiera utsez artutako bizikerak. Oiñarri bakoak

Kontzilioak, aipatutako testotan, au erlijio askatasunari buruz irakatsi eban. Baiña bardin balio daike beste errealitateetan. Eliza katolikuaren ikuspuntutik, bearbada beste errealitate batzuetan errezago zan printzipio onen indarra ikustea, erlejiño-askatasunean baiño. Orregaitik izan zan ain neketsua argi orretarako bidea: Elizaren beraren mezua eta esentzia jartzen ziralako jokoan, istorian zear barneratu eban bere kontzientzia.

b) Gaur, tolerantziaz eta pluralismoaz, oiñarri onen ondoan beste au ere argitan jarten da: iñork ez daukala egia osorik, iñor ez dala egiaren guztizko jabe. Egia agortu eziñeko errealitatea dala, eta danen lankidetzaz bear dala, aretaz geroago eta obeto jabetzeko. Au batez ere erlejiñoari buruz esaten da, bere gaia Mugabakoa eta misterioa danez.

Olan da duda barik. Gizadiaren aldi guztietakoi historia kontuan izatea baiñi ez dago, eta gaur berton geure barne egoeraz konturatzea, ez garala egia osoaren jabe autortzeko. Ondorioz, au ere arretaz artzeko erizpidea da. Baiña ezin daikegu unibersalizatu, bide orretatik ezetizismora eta indiferentismora elduko giñake eta: iñoz ez gara gauza egiaren jabe izateko, beti dago aurretik, pluralismoaren barruan alkarrizketa izan ondoren ere bai. Iñork egia osorik ez daukanez, bardin este dira urtenbide guztiak? Eta osorik eukiterik ez badago, noraiñoeko egia zatiak este daukaguz danon artean ere, arcan ba-

dogu? Eta nik egia osoa lortu ezin dodalako, bestearenak osotzen dau benetan nire egia? Zein da erizpidea? Ez da naiko, pluralismoa oiñarritzeko, egiaren erlatibitatea aipatzea. Baten erlatibitateak ez dau oiñarritzen bestearen egi-partea.

Egiaren erlatibitate au (gure ezagupenaren erlatibitatea) guztiz garrantzizkoa izan arren, leenengo oiñarriaren ordekoa edo alternatiba ez da. A geratzen da benetan eta beti oiñarri. Nai ta egiaren ziurtasuna naikoa izan, beste personearen duintasunaren eta askatasunaren eskubideak agintzen deusku.

c) Tolerantzia eta egia. Aurrerago, “egiaren eskubideak” aipatzean, esan dot zuzena dan zerbait agertzen dala istoriako uste orretan. Tolerantziak, jarrera etikoa danez eta, beraz, giza balora danez, egiaren borondatea eskatzen dau indar bardiñaz. Tolerantzia edo taktika utsa da (neu bakean utzi nagien, bizitzen uzten nagien, nik ere bakean uzten ditut), edo giza balora da, errealitate etikoa (au da, personearen diuntasunetik sortzen dana). Leenengoan etikatik kanpo gabiltz. Norberekeri kalkuluan mobitzen gara. Baiña gizatasunean gelditu nai badogu, tolerantzia balora etikotzat eta egiatzat euki bear dogu. Tolerantzia, ondorioz, ez dago egiaren aurka: giza egiantzako pausua dogu, ostera. Personearen duintasunak argitu deusku, arek, aal dala, askatasunean jardun bear dauala, eta ori bage zapaldu egiten dala eta faltsokerian eraiki. Personearen egiak eroan gaitu tolerantziara. Egia bako tolerantzia (indiferentea) ez da tolerantzia etikoa.

### ***3. Tolerantziaren mugak.***

Tolerantziagaz batera jasan-eziñezkoa aipatu dogu. Orain jasangarri eta jasan-eziñekoaren arteko muga marratu nai dogu. Edo, obeto, muga orren erizpideak izendatu.

Leenengo pausua egiteko, orokorki, tolerantziaren muga persona bera, bestea, gizartea apurtzen, desegiten dauan jardunean datza. Or bilatu bear dala erizpidea esan nai dogu. Baiña

baieztapen orokor au ez da naikoa: persona eta gizartea kaltegarri dan edozerk apurtzen dau (edo zauritzen); orregaitik da kaltegarria. Baiña kaltegarri diran guztiak ez dira jasan-eziñezkotzat artzen; ezin daitekez olakotzat era berean artu, eta, beraz, indarrez debekatu: askatasunaren kontrako kaltea andiagoa izango litzake, eta edozelako ondoriak larriagoak, esperimentziako adibideak erakusten deuskuen lez. Orregaitik, "apurtu", "desegin" itza erabilli dogu, aparteko kaltegarritasuna esateko.

Emen ere beriztu geinke oindiño; bat da jasan-eziñezkotzat eukitea eta beste da, esate baterako, zelanbaiteko indarrez debekatzea. Mozkortzeak kalteak dakarz, eta batzuetan negargarriak familian, baiña autoridade politikoa ez da or sartzen zuzenean (nai ta inguruko neurriak bai artu). Droga trafikua dala ta, erabagi ezberdiñak artzen dira gizartean, bein batera eta bein bestera, osasun publikoak ze kalte jasaten dauan neurtuz. Eziñezkoa litzake egite guztiak eraz neurtu eta bideratzea. Kaltea, eta askatasunaren zapalketa, aundiagoa izango litzakez.

Beraz, pausu oneek daukaguz: 1. Jasan-eziñezkoa ez da edozein kalte edo jardun negatibo, personak eta gizartea apurtzen dituana baiño. 2. Jasan-eziñezko guztiak ezin daitekez indarraz debekatu, ondorioak txarragoak badira. 3. Jasan-eziñezkoa debekatzean askatasunaren balioa eta emonkortasuna izan bear da gogoan erizpidetzat.

Baiña orain arte esandkoa orokorra dogu beti ere. Konkretuko zelan erabagitzen da bat edo baste jasan-eziñezkoa dana, personak, gizartea desegin egiten ditualako?

Emen daukagu tolerantziaren istoria (eta intolerantziarn istoria). Orain arteko mugak ez dira batera erizpideren baten bidez lortu. Barriro ere egiaren istorikotasuna ikusten dogu. Leenago jasan-eziñezkotzat eukiak eta debekatuak ziranak, pausuka ez debekatu eta ez jasan-eziñezkotzat artu ziran.

Eta alderantziz, leenago jasangarriak ziranak, gero jasan-eziñezko biurtu dira guretzat: esklabutza, erlejiño persekuziñoak, torturak meatzetako umeen lana, lan orduak, emakumeen eskubideak, langilleen eskubideaak. Gaur oindiño jasangarri agertzen diranak, edo olan artuak diranak, egunen baten jasan-eziñezko biurtuko dira (naziño aberatsak naziño txiroen gerrakin aberastutzea; munduan ainbeste ondasun alperrik galtzea; munduko indarrak naziño aberats batzuk xautu eta orren kaltea mundua guztiak jasan bearra, etabar...). Errealitate bi dagoz gaurko mundu jasan-eziñezkoak diranak eta kontzientzi lasaiz jasaten diranak: munduko gosea eta miseria, eta gure munduko aur-galtzea. Jasan-eziñezkoak: gizatasuna bera, persona izatea bera ukatzen dabenak, eta beste eskubide guztiak lojika-ezaz eta kontraesanez mantentzen dirala.

Aurrerapen onetan eragille bi nabarmentzen ditugu: 1. Giza-sensibilitatea, zelanbait esateko: giza-duintasunaren eskubide konkretoa ikustea da. Baiña ikuste orretan ez da geien baten arrazoi teorikoz jokutzen, ikus-sentipenez baiño. 2. Sensibilitate ori zelan biztuten dan, eskubide konkretoa argiago ikusteko, ez da bapere errez zeaztutzea. Baiña aalbide istorikoak baldintzatzen dabe. Aurrerago egindako pausuak eta orain inguratzen gaituen aalbideak bultzatzen dabe gizakiak giza-eskubide konkretok ikusteko dauan aalmena.

#### **4. *Tolerantziaren arloak.***

Giza bizitzaren zabaltasun osoa artzen dau. Gizartea, onen barneko erakundeak, erakunde barruko artuemonak eta erakundeen artekoak, familia, Eliza, Elizen eta erlejiñoen arteko arremanak.

Gure ikuspuntutik zein dan garrantzitsuagoa ezin daiteke esan. Arlo guztiak dira gora andikoak. Bakoitzak une batean zelako bizikizuna dauan, orrela epaituko dau garrantziari buruz. Batentzat, Eliza barruko tolerantzia izango garrantzitsua.



Beste batentzat, gizarteko gogorkeriaren aurrean, gizarte tolerantzia. Arentzat, elizen ekumenismoa, edo erlejiño guztien arteko tolerantzia. Onetan ere gizakiaren istorikotasuna eta mugatua izatea agertzen da. Etika aldetik ain garrantzitsuak diran gaietan gizakia illun, itsu eta kontraesanekoa izatea. Itsukeria onetatik ez gaitu pentsamentu abstraktoak ateratzen, sensibilitate espiritualak baiño. Eta au ere ez dago ez kultura akademiakoari ez ideia erlijioso argiei lotuta, istoriak irakasten dauan lez. Giza historia eta gaurko mundua burruka onen lekuko: giza espiritua (personearen kontzientzia eta askatasuna) bere izatea (bere benetako etikotasuna) ukatzen eta ezeztutzen daben indar illunen artean.

*Luis Arostegi*